

• **Saskibaloia**

Tau Baskonia: Gasteizko taldeak gaur ekingo dio Saporta Kopari Bosna Sarajevoren etxean (17:30, ETB1) → **31**

• **Txirrindularitza**

Espainiako Vuelta: Igor Floresek eskuan eduki zuen etapa, baina azkenean Ekimov gailendu zen → **32-33**

Reala ♦ Aurrelaria oso pozik dago Mallorcaren aurka garaipenaren gola egin ondoren

Aldeondo minutu eske

«Bestela ezin bada, ipurdiarekin sartu nahi ditut golak», dio

Jon Balenziaga / Donostia

AITOR ALDEONDOK zazpi minutu baino ez zituen jokatu Mallorcaren aurka, baina, hala ere, neurketa erabakita utzi zuen gola egiteko gai izan zen. Erronka latza du Aldeondok: minutu gutxitan jokatzen duen arren (denboraldi honetan 33tan), partiduari buelta emateko erantzukizuna hartu behar izaten du sarritan. Mallorcaren aurka egindako golaren ondoren gustura azaldu zen atzo Zubietan. Era berean, badaki horren minutu gutxitan jokatuta zaila izango duela beti garaipenaren gola egitea. Horregatik, nahiz eta aurrealdean lehia ikaragarria dagoela aitortu, minutu gehiagotan jokatu nahi duela esan zuen. «Ematen dizkidaten aukera guztiak aprobetxatuko ditut. Hala ere, zaila da partidua erabaki behararen erantzukizun horri aurre egitea. Erronka hori gustukoa dut, baina beti ezin da asmatu. Modurik onenean jokatzen ahaleginduko naiz hurrengoan titular izateko. Minutu apur horiek Mallor-



Aitor Aldeondo baloiarekin, denboraldi-aurrean Anoeta estadioan Udineseren kontra jokatutako partiduan.

hitz bitan

Haren golak: Denboraldi honetan gol bat darama. Aurrekoan, Ligan bat, UEFAn bi eta Kopan beste bat. Kraussek Realak Bn 30 eskatu zizkion, eta agindutakoa bete ondoren bigarren denboraldia du Realean.

caren aurkakoak bezalakoak badira, ongi, baina beti asmatzea ezinezkoa da».

Aldeondo jokalaria urduria da oso. Partiduak bete-betean bizi ditu. «Berotze ariek egiterakoan markagailura begira egoten naiz, ea zenbat minutu falta diren ikusteko. Aukeraren bat huts egiten badugu urduri

jartzen naiz, saltoka. Egunen batean gaitzen batek joko nau». Golak ospatzen ere trebea da. «Normalean azken pasea egin dudana jokalariekin ospatzen dut, baina atzo -herenegun- zaleengana joan nintzen lehenengo. Golak nola edo hala egin nahi ditut, bestela ezin bada, ipurdiarekin.»

«Jarraitzaileak subiranoak dira», dio Kraussek

BERND KRAUSS entrenatzaile alemaniarak atzoko prentsaurrekoan esan zuen partidu arraroa jokatu zutela Realak eta Mallorca igandean. «Partidu arraroa izan zen. Baloiaren jabetza guk izan genuen hein handi batean, baina ondoen jokatzen ari ginen berdinketaren gola jaso genuen. Hala ere, gustura nago tal-

deak erakutsitako jarrerarekin. Hori da nik nahi nuena. Jarrera horrekin norgehiagoka bat galtzeak ez nau horrenbeste kezkatzen. Rayoren aurkako partidua zorionez ahaztua dago orain». Entrenatzaile alemaniarak aldaketa asko egin behar izan zituen Mallorcaren aurka jokatzeke; dena den, aldaketa haiek ez ziren

asko nabaritu Kraus- sen ustez. «Nahiz eta aldaketak egin, taldeak ongi erantzun du. Partiduari neurria hartzea zaila izan ohi da jokalaria berriak tarteko direnean, baina alde horretatik, ez genuen arazorik izan». Realak egindako jokoa buruz, Atletico de Madriden aurka aritu ziren bezala beti ezin direla aritu esan zuen.

Eta denboraldi honetan, garaipenak oso garesti daudela dio Kraussek. «Asteburuko emaitzak ikustea baino ez dago. Liga oso lehiatua izango da».

Aitor Lopez Rekarte egiten ari den Liga hasierari buruz galdetu zitzaionean, banan-banan ez zuela jokalaririk aztertuko erantzun zuen. Bestalde, Realeko jarraitzaileek

Mallorcaren aurkako partiduan Albertori eskaini zizkioten txistuen inguruan ez zuen deus aipatu Kraussek. «Jarraitzaileen jarrearari buruz ez dut iritzirik. Jarraitzaileak subiranoak dira».

Azkenik, datorren larunbatean Celtaren aurkako partidua «oso zaila» izango dela uste du Realeko entrenatzaileak.

Alberto eta Idiakez ez ziren entrenatu

Alberto eta Iñigo Idiakez ez ziren atzo goizeko lan saioan aritu. Bi jokalariek garrantzi gutxiko kolpeak jaso zituzten igandeko partiduan. Albertok izterrean jaso zuen kolpea, eta Idiakezek, berriz, sorbal- dan. Bi jokalariek arazorik gabe entrenatuko dira bihar. Jose Felix Guerrero, bestalde, bere kasa aritu zen korrika, gainzama txiki bat duelako izterrean.

Gaur jai, eta bihar goiz eta arratsalde saioak

Realeko jokalariek atsedeguna izango dute gaur. Bihar, ordea, goiz eta arratsalde ariko dira Zubietan. Goizeko lan saioari 10:00etan emango zaio hasiera, eta arratsaldekoari, berriz, bostak eta erdietan. Ostegun eta ostiralean goizez entrenatuko dira (hamarretan), eta larunbatean goizeko hamarretan.

Reala-Celta, larunbatean (21:00, ETB1)

Larunbat honetan Realak Celta hartuko du Anoetan. Norgehiagoka hau gaueko bederatzietan hasiko da eta Euskal Telebistak zuzenean eskainiko du, lehen katetik.

Lopez Rekarte gustura egindako partidurekin

Aitor Lopez Rekarte arratsatearra gustura dago denboraldi hasiera honetan aurrekoan baino txukunago ari delako jokatzen. «Iragana ahaztu eta oraina bizi behar da. Orain arte egindakoarekin gustura nago, baina hasi baino ez dugu egin denboraldia». Mallorcaren aurka ezkerretik aritu zen Aranzabalen tokia betez. Hegal batean zein bestean gustura jokatzen dut, ez nuen aparteko arazorik izan».